



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

193. INFORMAZIO BULETINA

2024ko urtarrila



Europar Batasunak
kofinantzatua

Cofinanciado por
la Union Europea



2024ko urtarrila

ALBISTEAK

Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) 2021-2027 aldirako finantzatutako programetan diruz lagundu daitezkeen gastuei buruzko arauak.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera egindako eta benetan ordaindutako gastuei aplikatuko zaizkie.

Eskualde Garapeneko Europako Funtsari, Europako Plus Gizarte Funtsari, Kohesio Funtsari, Trantsizio Justurako Funtsari eta Europako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtsari buruzko xedapen komunak ezartzen dituen 2021/1060 EBko Erregelamenduaren 63.1 artikulua ezartzen duenez, arau nazionaletan oinarrituta zehaztuko da diruz laguntzeko modukoa den gastua, salbu eta erregelamendu horretan edo funts bakoitzaren erregelamendu espezifikoetan, edo horietan oinarrituta, arau espezifikoak ezartzen badira.

Agindu hori betetzeko, abenduaren 30eko BOEn (313. zk.) argitaratu da abenduaren 27ko HFP/1414/2023 Agindua, EGEFek eta Trantsizio Justurako Funtsak 2021-2027 aldirako finantzatutako programek diruz lagun ditzaketen gastuei buruzko arauak onartzen dituen.

Informazio gehiago: [**1414/2023 HFP Agindua**](#) (gaztelaniaz)

57/2023 Foru Dekretua, abenduaren 19koa, zeinaren bidez aldatzen baita 10/2022 Foru Dekretua, maiatzaren 3koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoaren Etika Institutuzionalaren Batzordearen antolaketa, prozedura eta funtzionamendurako arauak ezartzen dituen.

Etika Institutuzionalaren Batzordea organo independentea da, eta, besteak beste, Foru Aldundiaren jokabide-kodeetan arautzen diren balioak, printzipioak eta jokabide-arauak betetzen direla zaintzen du.

2024ko urtarrilaren 8ko GAO (5. zk.), 57/2023 Foru Dekretua argitaratu da, abenduaren 19koa, zeinaren bidez aldatzen baita 10/2022 Foru Dekretua, maiatzaren 3koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoaren Etika Institutuzionalaren Batzordearen antolaketa, prozedura eta funtzionamendurako arauak ezartzen dituen, otsailaren 20ko 2/2023 Legean ezarritako baldintzetara egokitzeko.

Otsailaren 20ko 2/2023 Legeak, arau-hauste eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duenak, Espainiako Zuzenbidean txertatzen du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren urriaren 23ko 2019/1937 Zuzentaraua, Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa.

Arauren helburua da lan- edo lanbide-testuinguru batean arau-hauste penal edo administratibo larriak edo oso larriak detektatzen dituzten eta legeak gaitutako mekanismoen bidez jakinarazten dituzten pertsonak babestea.



2024ko urtarrila

Lege horren 13. artikulua ezartzen duenez, sektore publikoa osatzen duten erakunde guztiek, tartean toki-administrazioa osatzen duten erakundeek, barneko informazio-sistema bat izan behar dute.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoaren Etika Institutuzionalaren Batzordea, Foru Sektore Publikoaren Sistemaren berme organo independentea, foru sektore publikoaren barneko komunikazio-sistema da gaur egun.

Etika Institutuzionalaren Batzordeak arau-urratzei buruzko informazioa emateko eta salatzaileak babesteko barne-sistema gisa jardungo du foru sektore publikoan, eta bidea izango da foru sektore publikoan integratutako entitate eta erakundeetan gertatzen diren egite edo ez-egitei buruzko informazioa emateko baldin eta arau-hauste penal edo administratibo larri edo oso larri gisa har badaitezke edo otsailaren 20ko 2/2023 Legean xedatutako baldintzak betetzen dituzten Europar Batasuneko Zuzenbidearen arau-hauste gisa har badaitezke

Informazio gehiago: [57/2023 Foru Dekretura](#) lotura.

Euskal Autonomia Erkidegoko Plus Europako Gizarte Funtsaren 2021-2027 Programaren esparruan kofinantzatu beharreko eragiketak hautatzeko deialdia.

Deialdiaren aurrekontu-zuzkidura 30.000.000 eurokoa da.

Urtarrilaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (9. zk.) argitaratu da 2023ko abenduaren 27ko Ebazpena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez argitara ematen da Euskal Autonomia Erkidegoko Plus Europako Gizarte Funtsaren 2021-2027 Programaren esparruan Europako Gizarte Funtsak kofinantzatu beharreko eragiketak hautatzeko deialdia.

Deialdi honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan erakundeen partaidetza sustatzea EAEko Plus Europako Gizarte Funtsaren 2021-2027 Programan, eta programa honen esparruan kofinantzaketa europarra eskuratuko duten eragiketak hautatzea. Besteen artean, ondoko erakundeak izan daitezke onuradunak: foru aldundiak, toki-erakundeak, garapen-agentziak, irabazi-asmorik gabeko entitateak.

Hautatu eta finantzatu beharreko eragiketak honako jardun-ildo hauen barruan kokatu beharko dira:

- Langabetuak laneratzeko ibilbideak
- Talentua erakartzeko eta atxikitze neurriak
- Autoenplegurako hasierako laguntza, eta hura finkatzeko eta enpresak sortzeko.
- Pertsona zaurgarriak laneratzeko eta gizarteratzeko ibilbideak
- Lan-merkatutik urrunen dauden gazteak laneratzeko ibilbideak

Eskabideak aurkezteko epea otsailaren 12an amaituko da.

Informazio gehiago: [EGIF+ Deialdirako](#) esteka.



2024ko urtarrila

Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (BEEP) barruan berrikuntza sozialeko proiektuetarako dirulaguntzak.

Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuak 2023ko ekitaldiko berrikuntza sozialeko proiektuetarako dirulaguntzak eman ditu. Laguntza horiek Europako funtsekin finantzatzen dira, BEEPen esparruan.

Estatuko Aldizkari Ofizialean, 2021eko urriaren 30ean, Gizarte Eskubideen eta Agenda 2030 Ministerioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko lankidetzaren hitzarmena argitaratu zen, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoak datozen Europako funtsen kargurako proiektuak gauzatzeko. Bertan, foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak gauzatu beharreko proiektuen zerrenda jasotzen da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak gauzatu beharreko proiektuen artean dago 4.a: Gipuzkoako adinekoen egoitza-zentroyen sarea pertsonarengan oinarritutako bizikidetzaren ereduera egokitzea, eta 15.a: Gipuzkoa Zaintza Lurraldea 2030/Gipuzkoa. Orain emandako dirulaguntzak proiektu horiei dagozkie, eta zehazki, lau lerro diruz lagundu dira:

- Tokiko zaintza-ekosistemen proiektuak, berriak eta jarraipenekoak. Guztira 10 proiektu lagundu dira, 558.698,36 €.
- Berrikuntza-proiektu pilotuak adinekoentzako egoitza-zentroyetan. Guztira 4 proiektu lagundu dira, 154.081,55 €.
- Gizarte berrikuntzako proiektu pilotuak eta garapena haurrak eta nerabeak babesteko, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak babesteko, desgaitasunen bat duten pertsonen autonomia eta independentzia sustatzeko eta gizarteratzeko. Guztira 9 proiektu lagundu dira, 625.266,27 €.
- Etxean zainketa berritzaileak hobetzeko eta sustatzeko zerbitzu berriak ezartzeko edo egungo zerbitzuak egokitzeko proiektuak finantzatzeko. Guztira 5 proiektu lagundu dira, 229.835,76 €.

Informazio gehiago: [**Ebazpena**](#).



2024ko urtarrila

EUROPAKO DEIALDIAK

NEXT GENERATION FUNTSEKIN FINANTZATUTAKOAK

Udalerriei emisio txikiko eremuak ezartzeko eta hiri-garraioaren eraldaketa digital eta jasangarria egiteko laguntzen programaren oinarri arautzaileak aldatzen dira, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, eta 2021eko ekitaldiko deialdia onartu eta argitaratzen da.

Turismo Helmuga Adimendunen Sareko destinoetan plataforma teknologikoak eta irtenbide digitalak hedatzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen dira, eta 2024. urteko deialdi aurreratua egiten da, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. Eskabideak aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2023. urterako Zientzia eta Teknika Ikerketarako eta Berrikuntzarako Estatuko Planaren (2021-2023) eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan Berrikuntzako Ekosistemarako laguntzak emateko deialdia onartu da. Eskabideak aurkezteko epea 2024ko martxoaren 12ko 12:00etan amaituko da.

Aldatu egiten da emisio txikiko eremuak ezartzeko eta hiri-garraioaren eraldaketa digital eta jasangarria egiteko udalerrientzako laguntzen programaren 2022ko ekitaldiko deialdia onartzen eta argitaratzen duen Ministro Agindua, Europar Batasunak finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren – NextGenerationEU – esparruan.

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (MRR) kontura Moves II programa finantzatzea erabakitzen da.

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren kontura Eraikinen Birgaitze Energetikoaren Programa finantzatzea erabakitzen da.

Azaroaren 2ko 949/2021 Errege Dekretua aldatzen da. Errege Dekretu berriaren bidez, biosegurtasunaren arloko inbertsioetarako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dira, hori guztia Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. Zehazki, bai abereak errepidez garraiatzeko ibilgailuak garbitzeko eta desinfektatzeko zentroak hobetzeko, bai helburu horrekin zentro berriak eraikitzeko, bai intsektuen bektoreetatik babesteko instalazioetan inbertsioak egiten dituzten eta landare-material jakin batzuk ekoizten dituzten kategoriako profesionali laguntzeko mintegiak eraikitzeko.



2024ko urtarrila

Turismoaren sektoreko enpreetan «Azken Milia» digitalizatzeko proiektuetarako laguntzen oinarri arautzaileak onartzen dira, eta 2023ko deialdia egiten da, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. Eskabideak aurkezteko epea 2024ko martxoaren 13an amaituko da.

Gizarte Ekonomia Bultzatzeko Plan Integralerako laguntzen deialdia egiten da, Ekonomia Sare Ekonomiko, Inklusibo eta Iraunkorra Sortzeko, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. Eskabideak aurkezteko epea 2024ko otsailaren 12an amaituko da.



2024ko urtarrila

BESTE DEIALDIAK

SMP-COSME. Merkatu Bateraturako Programa - ETEen lehiakortasuna. Klusterrei eta partzuergoei laguntzeko atala. SMP-COSME-2021-CLUSTER-01.

- **AEC EUROCLUSTER.** “Go International” nazioartekotze-ekimena, AECen bildutako eraikuntza-klusterretan. Hurrengo epemuga.
- **B-RESILIENT.** Erresilientzia, biomasaren zirkulartasuna eta digitalizazioa elikagaiak prozesatzen dituzten ETEen klusterretan. Proiektuen azeleraziorako kopuru finkoko laguntzak.
- **SILEO.** Altzarien eta argiztapenaren sektoreak. Talentua kokatzeko laguntzak.

Kanpoko Ekintza.

- **Europe Aid Laguntzak.**
 - NDICI. Europa Globalaren Nazioarteko Auzotasun, Garapen eta Lankidetzarako Tresna. Giza Eskubideei eta Demokraziari buruzko programa tematikoa. EuropeAid/177407/DH/ACT/Multi.
 - Kongoko Errep.Dem. Nekazaritzako eta elikagaien balio-kate iraunkorrak garatzeko laguntza. EuropeAid/179009/DD/ACT/CG.
 - Kosovo. EBren mekanismoa gizarte zibilerako eta komunikabideen programa. EuropeAid/179419/DD/ACT/XK. Hurrengo epemuga, 24.02.06.
 - Israel. Kontsumo-produktuen segurtasunerako bidezko ingurunea: merkatuaren zaintza hobetzea eta EBko jardunbide onenetan oinarritutako autoerregulazio-sistemak ezartzea. EuropeAid/179829/DD/ACT/IL.
 - Georgia. Gaixotasunak zaintzeko sistema nazionala hobetzea, zaintza epidemiologikoa eta molekularra hobetuz (genomika). EuropeAid/179906/DD/ACT/GE.

Erasmus Plus, Hezkuntza Programa. Hezkuntza-erakundeak homologatzeko, unibertsitateetako partzuergoak bultzatzeko eta haien arteko lankidetzarako deialdiak.

- **ECHE.** (Erasmus Gutuna Goi Mailako Hezkuntzarako). ERASMUS-EDU-2022-ECHE-CERT-FP. Goi-mailako hezkuntzako erakundeak Erasmus programako jardueretarako hautagai gisa egiaztatzea edo homologatzea.
- **Unibertsitateen elkarkidetzak.** ERASMUS-EDU-2024-EUR-UNIV-1. Europako Unibertsitateen Bikaintasuneko Partenerioak - Nazioz gaindiko lankidetzeta instituzional sakona garatzea. Hurrengo epemuga, 24.02.06.
- **Praktika-komunitatea.** (Unibertsitateetako itun edo partzuergoen arteko lankidetzeta-esparrua). ERASMUS-EDU-2024-EUR-UNIV-2. Hurrengo epemuga, 24.02.06.



2024ko urtarrila

Creative Europe. Komunikabide digitalen eta kultura-lankidetzaren atalak.

- **CREA-MEDIA-2024-INNOVBUSMOD.** Tresna eta negozio-eredu berritzaileetarako laguntzak.
- **CREA-MEDIA-2024-DEVVGIM.** Bideojokoak eta murgiltze-edukiak garatzeko laguntzak.
- **ZMINA REBUILDING.** Ukrainako artistei eta kultura-erakundeei laguntza ematea, Ukrainan eta Europa Sortzaileko herrialdeetan obrak sortu eta erakusteko. Izolyatsia Fundazioaren (Ukraina) gidaritzapean, Maly Berlin (Eslovakia) eta Trans Europe Halleekin (Suedia) lankidetzan. Estatu-mailako dirulaguntzen bigarren sorta. CREA-CULT-2023-COOP-UA. Hurrengo epemuga, 24.02.07.

ERA. Europako Ikerketa Arloa. Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa. Herrialde ez hain aurreratuen eremuko ekimenetarako laguntzak (WIDERA).

- **ERA Talent – EURAXESS.** EURAXESS sareko ikertzaileak ERA Talent programan sartzeko eta "EURAXESSen nodoen (hub-en) inpaktua biderkatzeko" deialdia. ERA Talent eta EURAXESS ERA esparruaren bi programa eta sare dira. HORIZON-WIDERA-2022-ERA-IBA.
- **ERako berdintasun-sariak.** HORIZON-WIDERA-2023-GENDER-Prize.
 - 04. "Genero - berdintasun iraunkorra".
 - 05. Genero - berdintasunaren lidergo berriak.
 - 06. Genero - berdintasunaren lidergo barneratzaileak.
- **REINFORCING.** "Berrikuntza eta I+G Irekia eta Arduratsua" erakunde eta lurralde mailetan bultzatzeko ERAren 1. deialdia.

Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa. Beste deialdi batzuk.

- **D-RURAL – Eskualde pilotuak eta erreplikatzailak.** Landa-ekonomiak sustatzea sektore arteko zerbitzu digitalen plataformen bidez. DT-ICT-09-2020. "Eskualde pilotuetarako" deialdiak (proiektuaren beraren aplikazio esperimentalekoak) eta "Ispilu-eskualdeetarakoak" (partzuergoaren jarduerak erreplikatu eta hedatzen dituztenak). DT-ICT laguntzak (digitalizazioa eta birmoldaketarakoak, komunikazioaren eta informazioaren teknologietan) Horizon Europe berrikuntza esparru-programakoak dira.
- **EUROHPC – ENERGY.** Europako baterako ekintza (JU) errendimendu handiko konputaziorako (HPC). Energia aldetik eraginkorrak diren teknologietarako deialdia. HORIZON-EUROHPC-JU-2023-ENERGY-04-01.
- **EUROHPC – INTER.** Europako baterako ekintza (JU) errendimendu handiko konputaziorako (HPC). Latentzia baxuko eta banda-zabalera handiko interkonexioen berrikuntzarako deialdia. HORIZON-EUROHPC-JU-2023-INTER-02-01.



2024ko urtarrila

- **INNOBUYER.** EIC. Europako Berrikuntza Kontseilua. Erosketa publikoari buruzko programa. "Konpontzaileentzako" deialdia (soluzio teknologikoak eskaintzen dituzten ETE berritzaileak, produktuak eta zerbitzuak erosten dituzten erakunde publikoentzat). HORIZON-EIC-2021-PUBLICBUY-01-01.
- **EITUM BP 23-25aren gaitasun-gunea.** EIT Teknologiaren Europako Institutuaren hiri-mugikortasunerako atalaren gaitasun-gunearen eta EITren 2023-25 negozio-planaren (BP) bazkideentzako deialdi ireki iraunkorra (EITUM BP 23-25). HORIZON-EIT-2023-25-KIC-EITURBANMOBILITY.
- **EU4Health – gobernuz kanpoko erakundeak.** EBko osasun-programa. Funtzionamendurako dirulaguntzak (OG), 2021/522 Erregelamenduaren helburu espezifiko bat edo gehiago inplementatzen dituzten gobernuz kanpoko osasungintza-erakundeentzat (Osasunaren Europar Batasunaren baterako ekintzaren sorrerako araudia). EU4H-2024-OG.

CEF. "Europa Konektatzen" mekanismoa. Energiaren atala. Azterlanak eta obrak.

- **Energia berriztagarrien mugaz gaindiko proiektuak.**
 - CEF-E-2023-CBRENEW-STUDIES (ikerketak)
 - CEF-E-2023-CBRENEW-WORKS (lanak).

CEF. "Europa Konektatzen" mekanismoa. Garraioen atala. Obrak eta azterlanak errepideetan, trenbideetan, portuetan, ibilbide nabigagarrietan edo topagune logistikoetan. Obretarako (WORKS), ikerketetarako edo bi motetarako laguntzak. Garraio sare zabaldua (COMP) edo oinarrizkoa (CORE). Kohesio-politikako eremuaren atala (COEN) edo lurralde-eremu generikokoa (GEN).

- **COMPCOEN:** "kohesio-eremua" eta sare generikoa.
 - CEF-T-2023-COMPCOEN-IWWP-WORKS, barruko portu eta ibilbide nabigagarrietarako (IWWP).
 - CEF-T-2023-COMPCOEN-MARP-WORKS, itsas portuetarako (MARP).
 - CEF-T-2023-COMPCOEN-RAIL-WORKS trenbideetarako (RAIL).
 - CEF-T-2023-COMPCOEN-ROADS-WORKS, errepideak, trenbide-terminalak eta plataforma logistiko moduanitzak (ROADS).
- **COMPGEN:** eremu generikoa eta sare generikoa.
 - CEF-T-2023-COMPGEN-IWWP-WORKS.
 - CEF-T-2023-COMPGEN-MARP-WORKS.
 - CEF-T-2023-COMPGEN-RAIL-WORKS.
 - CEF-T-2023-COMPGEN-ROADS-WORKS.
- **CORECOEN:** "kohesio-eremua" eta guneko edo oinarrizko sarea.
 - CEF-T-2023-CORECOEN-IWWP-WORKS.
 - CEF-T-2023-CORECOEN-MARP-WORKS.
 - CEF-T-2023-CORECOEN-RAIL-WORKS.
 - CEF-T-2023-CORECOEN-ROADS-WORKS.



2024ko urtarrila

- **COREGEN:** eremu generikoa eta guneko edo oinarritzko sarea.
 - CEF-T-2023-COREGEN-IWWP-WORKS.
 - CEF-T-2023-COREGEN-MARP-WORKS.
 - CEF-T-2023-COREGEN-RAIL-WORKS.
 - CEF-T-2023-COREGEN-ROADS-WORKS.

CEF. "Europa Konektatzen" mekanismoa. Garraioen atala. Mugikortasun segurua, jasagarria, elkarreragingarria eta adimentsua. Obra, ikasketa edo mota mistoetarako laguntzak (WORKS), edo ikasketetarako bakarrik (STUDIES) edo "unitatekako ekarpena" (UNITS) duten laguntzak, helburuen eta baldintzen arabera tasatutako zenbatekoak eta eskalak dituztenak.

- **SAFEMOBOCOEN:** segurtasuneko azterlan, obra edo ekintza mistoak. "Kohesio-eremua"
 - CEF-T-2023-SAFEMOBOCOEN-PARKINGS-WORKS (obrak bakarrik). Aparkalekuak.
 - CEF-T-2023-SAFEMOBOCOEN-RESILIENCE-WORKS. Azpiegituren erresilientzia hobetzea.
 - CEF-T-2023-SAFEMOBOCOEN-ROADSAFETY-WORKS. Bide-segurtasuna.
- **SAFEMOBGEN:** segurtasuneko azterlan, obra edo ekintza mistoak. Eremu generikoa.
 - CEF-T-2023-SAFEMOBGEN-EXTBORDER-WORKS: garraio-azpiegiturak egokitzea, Batasuneko kanpo-mugetan kontrolak egiteko.
 - CEF-T-2023-SAFEMOBGEN-PARKINGS-WORKS: segurtasuna aparkalekuetan.
 - CEF-T-2023-SAFEMOBGEN-RESILIENCE-WORKS.
- **SUSTMOBGEN:** Jasagarritasuna. Eremu generikoa.
 - CEF-T-2023-SUSTMOBGEN-MOS-WORKS: itsasoko autobideak (MOS); azterlanak, obrak eta ekintza mistoak.
 - CEF-T-2023-SUSTMOBGEN-MULTHUB-STUDIES: bidaiarien gune moduanitzak (MULTHUB). Ikasketak bakarrik.
- **SIMOBOCOEN:** "unitatekako ekarpenak" dituzten laguntzak, garraio elkarreragile eta adimendunerako. "Kohesio-eremua".
 - CEF-T-2023-SIMOBOCOEN-ERTMS-UNITS.
- **SIMOBGEN:** azterlan, obra edo ekintza mistoak, edo "unitatekako ekarpenak" garraio elkarreragile eta adimendunerako.
 - CEF-T-2023-SIMOBGEN-DATA-WORKS: datu-kudeaketa
 - CEF-T-2023-SIMOBGEN-eFTI-WORKS: Salgaien garraioari buruzko informazio elektronikoa (eFTI)
 - CEF-T-2023-SIMOBGEN-EMSWe-WORKS: Europako itsas leihatila bakarraren informazio elektronikoko sistema (EMSWe)
 - CEF-T-2023-SIMOBGEN-ERTMS-UNITS. Trenbide Trafikoa Kudeatzeko Europako Sistema (ERTMS)
 - CEF-T-2023-SIMOBGEN-ITS-WORKS: garraio-sistema adimendunak (ITS)
 - CEF-T-2023-SIMOBGEN-NEWTECH-STUDIES: teknologia berritzaile berriak (ikerketak)



2024ko urtarrila

- CEF-T-2023-SIMOBGEN-REMIB-WORKS: elkarrengarritasun-oztopoak ezabatzea (REMIB)
- CEF-T-2023-SIMOBGEN-RIS-WORKS: Barneko ibai-nabigazioari buruzko informazio-zerbitzuak (RIS),
- CEF-T-2023-SIMOBGEN-SESAR-CP-WORKS (inplementazio-obrak bakarrik). Europako Zeru Bateraturako SESARen (-CP) Programa Komuna, ATM teknologia ikertzeko (Transferentzia Modu Asinkronoak).
- CEF-T-2023-SIMOBGEN-SESAR-DSDU-WORKS: SESAR programaren zeru digitalaren erakusleak (DSDU), ekologikoagoa, eskalagarriagoa eta erresistenteagoa den ATM teknologia baterako: obrak bakarrik.
- CEF-T-2023-SIMOBGEN-SESAR-OP-WORKS: ATMko beste proiektu batzuk – obra eta azterlanen obra edo ekintza mistoak
- CEF-T-2023-SIMOBGEN-VTMIS-WORKS: Itsasontzien trafikoaren monitorizazio- eta informazio-sistemak (VTMIS).

Elkartasunerako Europako Kidegoa. VTHPA: Boluntarioritza-taldeak osasunaren lehentasunezko arloetan.

- **VTHPA.** Hurrengo epemuga: 24.02.08.

INNOVFUND. Karbono gutxiko teknologia berrietarako berrikuntza-funtsa. Jatorri ez-biologikoko hidrogenoa ekoizteko proiektuetarako deialdia, enkante bidez.

- **INNOVFUND-2023-AUC-RFNBO-Hydrogen.** Enkante bidezko deialdia (AUC) jatorri ez-biologikoko erregai berriztagarrien eremuan. Hurrengo epemuga: 24.02.08.

Kanpo Ekintza. Europe Aid laguntzak.

- **Europe Aid.** Laos. "Elkarrekin hazten": Haurren eta emakumeen eskubideen aldeko ekintza. Hurrengo epemuga: 24.02.08. EuropeAid/179740/DD/ACT/LA.

Erasmus Plus. "Jean Monnet" ekintzak eta goi-mailako hezkuntzako sareen gaitasun-garapena (CBHE).

- **ERASMUS-EDU-2024-CBHE-STRAND-** Hurrengo epemuga: 24.02.08.
 - -1. kapitulua (strand). Goi-mailako hezkuntzaren esparruan lankidetzarako sarbidea sustatzea.
 - -2. kapitulua. Eraldaketarako elkarteak goi-mailako hezkuntzaren eremuan.
 - -3. kapitulua. Egitura erreformatzeko proiektuak Erasmus Plus programaren lankide diren kanpoko herrialdeetako erakundeetan.
- **ERASMUS-JMO-2024-** Hurrengo epemuga, 24.02.01.
 - -CHAIRS. Katedrak.
 - -COE. Bikaintasun-zentroak.
 - -MODULE: Moduluak.
 - -NETWORKS-HEI-EU: Jean Monnet sarea barne-politikari buruz: "pertsonek zerbitzurako dagoen ekonomia".



2024ko urtarrila

- -NETWORKS-HEI-NON-EU-AFRICA: Jean Monnet sarea kanpo-politikari buruz. EB-Afrika.
- -NETWORKS-HEI-NON-EU-LATIN-AMERICA: Jean Monnet sarea, kanpo-politikari buruzkoa. EB- Latinoamerika.
- -NETWORKS-SCHOOLS: Jean Monnet sareak OFETen (hezkuntzaren eta prestakuntzaren beste arlo batzuen eremuan).
- -OFET-LEARNING-EU: Jean Monnet ekintzak OFETen (hezkuntzaren eta prestakuntzaren beste arlo batzuen eremuan). EBren ekimenei buruzko ikaskuntza (learning).
- -OFET-TT: Jean Monnet ekintzak OFETen (hezkuntzaren eta prestakuntzaren beste arlo batzuen eremuan). – Irakasleen prestakuntza (TT, Teacher Training).

COFUND MSCA. Marie Skłodowska-Curie ekintzen (MSCA-ren) jardunbide egokien zabalkuntza-ekimen kofinantzatutak. 2023 eta 2024 deialdiak. Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa.

- **MSCA COFUND 2023 - 2024.** Hurrengo epemuga: 24.02.08. HORIZON-MSCA-2023-COFUND-01-01, HORIZON-MSCA-2024-COFUND-01-01.

Horizon Europe berrikuntzako esparru-programaren misioak. CLIMAREST. Artiko-Atlantikoko arroan erresilientzia klimatikoa lortzeko ekintza sozioekonomikoak.

- **CLIMAREST.** Komunitate erresilienteentzako ekosistemak. Itsasoko eta kostaldeko ekosistemak lehengoratzeko eta arro artiko-atlantikoan erresilientzia klimatiko handiagoa izateko estandar ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalak garatzeko proiektua. HORIZON-MISS-2021-OCEAN-02-03. Hurrengo epemuga: 24.02.09.

Teknologiaren Europako Institutua, fabrikazio-dibisioa. Ukrainako enpresak EBko ehunean sartzea bultzatzea. Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa.

- **BoostUp! Ukraina 2024.** BoostUp (Nazioartekotzea bultzatzea). Lehiarako deialdia, Ukrainan hastapenaren fase garatuan dauden startup-enpresei laguntzeko eta Europako gainerako ehunekin harremanetan jartzeko. Europako Teknologia Institutuaren (EIT) manufaktura-dibisioa eta haren berrikuntza- eta ezagutza-komunitateen (KIC) deialdia. HORIZON-EIT-2023-25-KIC-EITMANUFACTURING . 2023-25 Jarduera Plana (EITM BP 2023-2025), manufaktura- eta fabrikazio-dibisioarena (EITM). Hurrengo epemuga, 24.02.04.

ADMA TranS4MErs programa. ADMAREN SMEak (ETEak) eraldatzeko laguntza eta prestakuntza (fabrikazio aurreratua). Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa.

- **ADMA TranS4MErs.** INNOSUP-08-2020 - Hurrengo epemuga, 24.02.07.

Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa. Europako trenbidearen zeregin komuna (ER/EU Rail). Esploratzeko ikerketarako (EXPLR) eta aireko garraioarekin sinergiarako (FA1) laguntzak.

- **HORIZON-ER-JU-2023-EXPLR.** Hurrengo epemuga, 24.02.07.



2024ko urtarrila

- -01. Zarata eta bibrazioak.
- -02. Etorkizuneko metro-sistemak.
- -03. Biodibertsitatearen gaineko eraginak.
- -04. Aktiboak kudeatzeko soluzio disruptiboak, hiri-erabilerako kasuak barne.
- -05. Trenbideko garraioari buruzko ikerketa-komunitatea eta doktorego-sarea handitzea.
- -06. Trenen flotak DAC sistemara berregokitzea (bagoien akoplamendu digitalizatua eta automatizatua) eta berregokitzeko gaikuntza-plana.
- -FA1-SESAR. 1. "Intsignia ontzia" ikerketa-eremua (FA1). Ekimenerako sinergia: trenbideena (EU Rail) eta SESAR (abiaziokoa, "ATMren transferentzia-modu asinkronoen teknologiei buruzko ikerketa SESrako, Europako zeru bateraturako"). "Aireko eta trenbideko enbor-sare integraturako laguntza, garraio multimodaleko sistema jasangarri eta energetikoki eraginkorra denerako".

Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa. 4. klusterra: digitala, industrial eta espaziala. Krisiaren aurreko erresilientziaren, trantsizio ekologiko eta digital bikoitzaren eta giza ahalduntzerako teknologien deialdiak.

Giza ahalduntzerako teknologiak ("HUMAN").

- **NGI – 0 Core:** Hurrengo belaunaldiko Internet. Internet erresistente, fidagarri eta jasangarri ireki baterako atal generikoa (nukleoa). HORIZON-CL4-2022-HUMAN-01-03. Hurrengo epemuga, 24.02.01.

Krisiaren aurreko erresilientzia ("RESILIENCE").

- **STAGE.** Plataforma edo ekosistema digitala, erresilientzian eta jasangarritasunean ardaztutako berrikuntzarako finantzaketa-baliabideen eta -iturrien sare batera sarbidea emateko. ETEen trantsiziorako finantza-laguntzak. HORIZON-CL4-2021-RESILIENCE-01-29. Hurrengo epemuga, 24.02.07.
- **SoTecln Factory.** Gizarte-berritzaileak. HORIZON-CL4-2021-RESILIENCE-01-31. Europaren erresilientziarako arlo estrategikoak. Hurrengo epemuga, 24.02.06.
- **HORIZON-CL4-2024-RESILIENCE-01.** 2024ko erresilientzia-deialdiak. Hurrengo epemuga, 24.02.07.
 - -01. Lurreko metaketa sakonetan lehengai kritikoak esploratzea (ikerketa eta berrikuntzako RIA ekintzak).
 - -04. Lehengai kritikoak prozesatzeko eta fintzeko teknologiak (berrikuntza-ekintzak).
 - -08. Imanen eta lur arraroen berrikuntza-zentroak (IA ekintzak).
 - -10. Lehengaiak hornitzeko kateetan behar diren betekizunei heltzea (koordinaziorako eta laguntzarako CSA ekintzak).
 - -11. Lehengai kritikoak erazteko eta prozesatzeko teknologiak (IA).
 - -24. Diseinu bidezko alternatiba seguruak eta iraunkorrek garatzea (IA).
 - -35. Enbalaje jasangarriko materialetarako polimero biodegradagarriak (IA).
 - -36. Osasuna zaintzeko biomaterial aurreratuak (IA).
 - -41. Eraldatzeko berritzea: ETEen jasangarritasunerako trantsiziorako laguntza (CSA).



2024ko urtarrila

Trantsizio ekologiko eta digital bikoitza ("TWIN-TRANSITION").

- **HORIZON-CL4-2024-TWIN-TRANSITION-01-** Hurrengo epemuga, 24.02.07.
 - -01. Manufaktura-industria bioadimendunak. "Made in Europe" lankidetza (RIA ekintzak).
 - -03. Fabrikazioa zerbitzu gisa: Eskaera pertsonalizatua, malgua eta deszentralizatua duen produktiorako teknologiak. "Made in Europe" lankidetza. (RIA).
 - -05. Fabrikazioan zirkulartasuna babesteko teknologiak eta soluzioak. "Made in Europe" lankidetza. (RIA).
 - -12. Ingeniaritza zibileko azpiegituren ebaluazioa, birmoldatzea eta konponketa hobetzea.
 - -32. Prozesatze-industriako energia termikoaren fluxuak optimizatzea. "Planetarako prozesuak – Processes4Planet" lankidetza (IA ekintzak).
 - -34. Ekoizpen-ibilbide berritzaileetan lehengai gisa erabilitako hidrogeno berriztagarria. "Planetarako prozesuak – Processes4Planet" lankidetza. (RIA).
 - -35. Prozesuen industriaren CO2 isuriak lehengai bihurtzea. "Planetarako prozesuak – Processes4Planet" lankidetza (IA ekintzak).
 - -38. Hirigune periferiko industrializatueterako zirkulartasun-zentroak. "Planetarako prozesuak – Prozesuak4Planet" lankidetza (IA ekintzak).
 - -41. Prozesatze-industriaren baliabideen eraginkortasuna hobetzeko aurrerapenak. "Planetarako prozesuak – Processes4Planet" lankidetza. (RIA).
 - -44. Transformazio digitala eta datu industrialak hobeto erabiltzeko bermea, altzairuaren hornidura-kateak optimizatu ahal izateko. Altzairu garbiko lankidetza (IA ekintzak).
 - -46. Altzairua ekoiztea hidrogenoarekin eta CO2 isuri neutroekin, bigarren mailako karbono- eta elektrizitate-eramaileak, edo altzairuzko aplikazio berritzaileak CO2 isuri txikietarako (RIA ekintzak).

Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa. 2. klusterra: Kultura, sormena eta gizarte barneratzailea. Atalak: Demokrazia (Zientzia soziopolitikoak), Ondarea (Kultura) eta Eraldaketak (Soziala). Hurrengo epemuga, 24.02.08. HORIZON-CL2-2024-

- **-DEMOCRACY-01-** Zientzia soziopolitikoetarako buruzko azterlanak. HORIZON-CL2-2024- DEMOCRACY-01-
 - -01: Protesta-politikak eta oposizio-kulturak demokrazian.
 - -02: Maila anitzeko gobernantza trantsizio digital eta klimatikoaren garaiak.
 - -03: Zuzenbide-estatuaren eta Europako beste balio batzuen epe luzeko eragina emaitza sozioekonomikoetan.
 - -04: Gizarte-, kultura- eta politika-identitateen arteko harremana, taldekide izatearen zentzua eta demokraziak.
 - -05: Genero-rolak muturreko mugimenduetan eta horiek demokrazian duten eragina.
 - -06: Gizarte Zientzia Konputazionalen ikuspegiak demokraziari buruzko ikerketan.
 - -07: Demokrazia digitala.



2024ko urtarrila

- -08: Parte-hartze demokratikorako eta adierazpen politikorako kultura, arteak eta kultura-espazioak, sareetan eta sareetaz kanpo.
- -09: Herri-administrazioen zeregina eta funtzionamendua sistema demokratikoetan.
- -10: Eremu eleaniztunetan politikan parte hartzea.
- -11: 2040ko europar demokraziarako etorkizuneko agertokiak eta gazteen ikuspegiak
- -12: Demokrazia eta gobernantza sustatzen dituzten ikerketa-emaizten proba eta inplementazioa.
- **-HERITAGE-01.** *Berrikuntza kulturalan, ondarean eta sormen-sektoreetan.* HORIZON-CL2-2024-HERITAGE-01-.
 - -01: Europako Bauhaus berria: irtenbide berritzaileak bizimodu ekologiko eta bidezkoagoetarako, artearen, kulturaren, arkitekturaren eta guztiontzako diseinuaren bidez.
 - -02: Kultura- eta sormen-industriren ekarpenak klima-trantsizio iraunkorraren alde.
 - -03: Trantsizio digitala aprobetxatzea Europako kultura- eta sormen-industria lehiakorretarako.
 - -04: Europako kultura-ondarea eta arteak: gure balioak herrialdean eta atzerrian sustatzea.
 - -05: Mundu globalizatu batean Europako hizkuntza-kapitala indartzeko estrategiak.
- **-TRANSFORMATIONS-01-** Europako eraldaketa nagusiei eta horien gizarte-inpaktuari buruzko azterlanak. HORIZON-CL2-2024- TRANSFORMATIONS-01-.
 - -01: Gomendio politikoak bakardadeak Europan dituen eragin sozioekonomikoetatik abiatuta.
 - -02: Justizia ekonomikoa eta lan-merkatuko politika aktiboen erresilientzia indartzea eta langabezia handiari heltzea.
 - -03: Kostuak minimizatzea eta enplegua sortzearen eta suntsitzearen onurak maximizatzea.
 - -04: Gizarte-zerbitzuak: itzulera ekonomiko eta sozialak eta balio erantsia.
 - -05: Elkarrizketa soziala lan-mundu berrian
 - -06: Horizontetik haratago: adimen artifizialaren eta gizakientzat lagunkoiak diren lotutako teknologien hedapena.
 - -07: Ikertzaileen talde-lanerako metodologiak: zeharkako lankidetzat-trebetasunak indartzea, portaera- eta inplementazio-zientziak.
 - -08: Kontzientzia eta adierazpen artistiko eta kulturala hezkuntzan eta prestakuntzan.
 - -09: Gizarte-ekonomiaren zeregina gizarte-bazterkeriari aurre egiteko, kalitatezko enpleguak eskaintzeko eta iraunkortasun handiagoa izateko.
 - -10: Gazteen hezkuntzaren eta lan-merkatuaren trantsizio eraginkorrak.
 - -11: Teknologia berrien eta giza gaitasunen arteko osagarritasuna ebaluatzea eta indartzea.

“EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN” webgunea